

**EH Bildu talde politikoa**  
**Grupo político EH Bildu**

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -  
20003 Donostia

**EGIAKO AUZO ELKARTEAK HELARAZITAKO TXOSTENARI BURUZKO  
KONTROL MOZIOA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko abenduaren 9an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

**JUSTIFIKAZIOA**

Azaroan, Egia Bizirik auzo elkarteko kideek txosten bat helarazi ziguten Udalbatza osatzen dugun talde politikooi auzoko behar eta arazoa batzuk zerrendatuz. Horietako asko mantenimenduari eta gune estalien beharrek ere erlazionaturako gaiak dira.

Auzo elkarteak berak adierazi duenez, oposizioko alderdiak haiekin harremanetan jarri garen bitartean, ez dute Udal Gobernuaren erantzunik jaso.

Batzordean delegatua interpelatzerakoan, auzoan hainbat konponketa egingo zirela adierazi zigun, auzo elkartearen eskaerei erantzunez (igogailuaren mantenimendu lanak, Tejeria kaleko argiteria hobetzea, etab.).

Plaza Haundiko gune estaliari dagokionez, partaidetza prozesua bukatu ondoren proiektua definitu zen eta lehenengo eraikuntza fase baterako 1.300.000€-ko aurrekontua aurreikusi zen. Aurreko agintaldiko Udal Gobernuak iragarri zuen obrak 2018. urteko udazkenean hasiko zirela eta zortzi hilabeteko epea izango zutela. Bi urte joan diren honetan, bizilagunek zain jarraitzen dute obrak noiz hasiko. Delegatuak batzordean emandako informazioaren arabera, hainbat arazo eta baimenen falta dela medio, gune estali honen proiektuarekin jarraitzeko aukera baztertu du Udal Gobernuak.

Gogorarazi behar da, bestalde, Grosen, Zuberoa plazako gune estalia ere baztertu duela Udal Gobernuak (2017rako obra honek amaituta egon beharko luke). Eta harrigarria da, izan ere, 2019ko maiatzaren 17an Udal Gobernuak, prentsan egindako adierazpenetan, Zuberoa plazako gune estaliaren proiektua bertan behera utziko zuela adierazi zuen, aurrekontu guztia Egiakoan inbertitzeko (hau da, aurrekontuaren egokitzapena egin zuen Zuberoa plazako 785.000 euro Plaza Haundin erabiltzeko). Gauzak horrela, 2015etik aurrera Donostian estaltzea aurreikusten ziren hiru plazetatik bat bakarrik dago estalia.

Urte zail eta berezi honetan ikasi ditugun gauzen artean, jolaserako eta aisialdirako gune ireki eta publikoen beharra izan da. Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

**EH Bildu talde politikoa**  
**Grupo político EH Bildu**

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -  
20003 Donostia

**KONTROL MOZIOA**

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2021. urteko aurrekontuan gunee estalien beharra kontuan har dezala, horretarako inbertsio bat bideratuz.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiriko gunee estalien beharrak aztertzeko eta obren jarraipen egokia egiteko batzorde bat sor dezala.
- 3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Plaza Haundiko gunea estaltzeko 2017ko prozesu parte-hartzailean inplikaturako eragileei azal diezaiela zertan gelditu den proiektua eta Udal Gobernuaren erabakia.

Donostian, 2020ko abenduaren 11n

Olaia Duarte López  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**